



Marrazki bien artean dauden 10 ezberdintasunak bilatzea eskatzen zaizu.

Ea zelan moldatzen zaren!!

Jarraian, marrazkiaren bitartez irudikatzen den arrisku-egoera aztertu eta neurri zuzentzaileak proposatzea ere eskatzen zaizu.

Animo!!



AZTER DEZAGUN MARRAZKIAK IRUDIKATZEN DUEN ARRISKU-EGOERA!!


EMAN ZEURE IRITZIA!!

Zer eta zergatik gertatu da??

ARRISKU-EGOERA



EGOERA-SEGURUA



ARRISKU-EGOERA EKIDITEKO NEURRI ZUZENTZAILEAK!!

1	Ebakuazioko bideak eta irteerak libre egongo dira beti.
2	Ate aurrean ez da inolako trabarik jarriko, materialik ere ez da utziko ate aurrean.
3	Arriskurik gertatuz gero, langileek segurtasun osoz eta berehala hustuko dituzte langune guztiak.
4	Larrialdietarako atek kanpora irekiko dira.
5	Ebakuazioko bidean dauden atek behar bezala seinaleztatuta egongo dira.
6	Languneak, zerbitzu-gelak eta bertako ekipo eta instalazioak aldian-aldian eta beharrezkoa den guztietan garbituko dira momentu oro higiene-baldintza egokietan mantentzeko.
7	Enpresa bateko kanpoko ateen gutxieneko neurria 0,80 cm izango da.
8	Enpresa bateko korridoreen gutxieneko neurria metro batekoa izango da.
9	Ebakuaziorako bideak eta irteerak edo horietara iristeko zirkulazio bideak trabarik gabe eta libre egongo dira beti.
10	Argiteria matxuratuko balitz, argizatuta edo beharreko ebakuaziorako bideak eta irteerak behar besteko argi-intentsitateaz hornituko dituen segurtasun-argiteria izango dute.

Proposa itzazu zeuk beste 5 neurri zuzentzaile. Animo!!

1	
2	
3	
4	
5	

**Ekidin daitezke antzeko arrisku-egoerak, ez duzu uzte??
Zabal dezagun prebentzio-kultura!!**